



EHUnenekoak

Ezagutzaren adaburua
sendo behar bada egun
ezinbesteko dira zenbaki,
letra, sare eta ehun...

Gizarterako, gizartearen
euskaldun ehuneko ehun
mundu hobe bat amestu eta
gauzatzen da EHUn

Eman ta zabal zazu jakintza,
zergatik izan gordeta?
Denon eskura irakaskuntza,
ikerkuntza, gogoeta.

Ezagutzaren adaburua
sendo behar bada egun
ezinbesteko dira zenbaki,
letra, sare eta ehun...
Gizarterako, gizartearen
euskaldun ehuneko ehun
mundu hobe bat amestu eta...
Eman ta zabal zazu jakintza!